


Sugarai Kooperatiba

Kokapena



Mendibe, Hergarai, Nafarroa Beherea

Biztanle kopurua: 183

Sustatzailea: Hergarai

Bizi elkarte

Harremanetarako:

0033695733221 -

Iratiko bidea 64220 Mendibe

scicsugarai@gmail.com

www.sugarai.fr

Energia-iturria: Biomasa

DESKRIBAPENA

Zerk eta zergatik sustatu da energia lanketa?

Testuingurua: 2009an, Hergarai (Nafarroa Beherea) eskualdeko bost udalerrri elkartu ziren, bailaran lan eta bizi ahal izateko dinamikak abiatzeko helburuarekin: Behorlegi, Mendibe, Lekunberri, Ahatsa, Buzunaritze. Hala, bosten artean Hergarai Bizi elkarte sortu zuten, eta hortik abiatu zen Sugarai kooperatiba 2014an, eskualdeko oiha-
narekin eta egurrarekin lan egiten duen proiektua; 2017an zabaldu zituen ateak.

Iratiko oihanetik ustiatzen duten egurra eraldatzen dute, eta ostean, zirkuitu laburraren bidez (50 km baino gutxiago) garraiatzen dute bezeroarengana. Bi motatako produktuak eskaintzen dituzte: zatika moztutako enborrak, etxeko suak berotzeko (paleta baten gainean eta sare batean bilduta saltzen dituzte) eta xehatutako egurra, gal-dara handiagotan erretzeko. Donibane Garazin, adibidez, berogailu kolektiboan erabiltzen dute, igerilekua eta bi zahar etxe berotzeko.

PROIEKTUAREN HELBURUAK

Hauexek dira Sugarai interes kolektiboko sozietate kooperatibak fin-
katu dituen helburuak:

- Ibarrean dinamika eta gutxienez enplegu baten sortzea.
- Energia berriztagarrien inguruan lan egitea, bereziki oihanen ku-
deaketan. Beren artatzea, mozten duten arboleak «beti badute jus-

tifikazioa». Geroari begira mozten den guzia berriz landatzen da.

- Oihanen ustiatzeko astirik ez duten laborariei diru sartze bat sortzea.
- Lekuan lekukoa egitea.

EKINTZA PLANAK ETA FASEAK

Zein izan da proiektuaren ibilbidea?

Diagnostikoa

2009an hasi ziren lehen pasuak ematen, Heragarai Bizi elkartearen aterkipean. Hala, 2013an, merkatu ikerketa bat egin zuten, lanpostu bat sortzeko ekoiztu eta saldu behar zuten egur kopurua ezagutzeko. Era berean, proiektua abiatu aurretik, diagnosi bat egin zuten ibarreko udalerriek, herritarrak Iratiko egurra kontsumitzeko prest ote zeuden jakin nahi baitzuten.

Halaber, oihan jabeei lekuko enpresa batekin euren basoa lantzeko prest ote ziren galdetu zieten. Izan ere, Iratiko oihanak 1000 hektarea ditu, eta horietatik 700 esku pribatuetan daude; horregatik, interresgarritzat jo zuten euren iritzia ezagutzea.



Emaitza horiek aztertu ostean, lan tresna bat sortzeko aukera egokia izan zitekeela ikusi zuten sustatzaileek, baita lanpostu bat sortzeko aukera ere.

Abian ipintzea

2015ean, proiektua kooperatiba bezala sortzea aurreikusi zuten; horretarako, bi bazkide mota onartuko zituen estatutuak aukeratu zituzten: publikoak eta pribatuak. Gauzak horrela, batetik, herritarrak edo norbanakoak dira bazkide (bezeroak ez du zergatik bazkide izan behar, edonor izan dateke bazkide), eta, bestetik, ibarreko herriko etxeak, Hiri Elkargoa, Oihan Publikoa Kudeatzen duen sindikatua, elkarteak eta enpresak.

Ildo berean, oihanaren jabetza publikoa eta pribatua dutenekin hitzarmenak eta kontratuak sinatu zituzten, basoak modu egokian kudeatu ahal izateko.

Jasangarritasuna eta egonkortasuna

Iraunkortasuna bermatzeko helburuarekin, zuhaitzak landatu dituzte fase honetan Iratiko oihanean. Hala, enpresa pribatu batek diruz lagunduta, arbolak landatzen dituzte Ipar Euskal Herrian barna.

Gaur egun, 110 bazkideetik gora ditu kooperatibak. Urtean behin antolatzen dute Biltzar Nagusia, erabaki nagusienak hartu ahal izateko (pertsona-erabile bat, bozka bat). Egunerokotasuna kudeatzeko, 10 lagun hautatzen dituzte eta horietatik bi kolehendakari izendatzen dituzte.

ALDERDI EKONOMIKOA

Aurrekontua

Bazkideak dira proiektuari sustengua ematen diotenak ordaintzen dituzten kuoten bidez.

Hasierako diru zama 40.000 € izan zen (kapitala, gutxi gorabehera 70 eragile). Bankuko mailegu baten bidez osatu zuten (35.000 €) lehen materiala erosteko (traktore bat eta lan tresnak: 75.000 €).

2017an, inbertsio fase handiena tokian bertan izan zuten; orotara, 240.000 € (150.000 € eraikuntza, 70.000 € materiala, 20.000 € ka-



mioi bat). Aurrekontu hau finantzatzeko kapitala 30.000 € emendatu zuten (beste 40 eragile berri sartu ziren kapitalean), 130.000 €ko banku mailegu bat hartu zuten, eta 70.000 € diru-laguntza publikoa erdietsi zuten. Azken 10.000 € autofinantziarioari esker lortu zuten.

2021ean, azken inbertsio fasea garatu zuten: egurra hobeto aterpetzeko 185.000 €ko eraikin bat sortu behar dute. Banku maileguz osoki finantzatuko dute. Eta oihanetik ateratako zura beti eta hobekien balorizatzen, egurra segatzeko materiala erosiko dute (35.000 € banku mailegu batekin finantzatua).

INDARGUNEAK ETA AHULGUNEAK

Indarguneak

- Zirkuitu motzeko aktibitatea
- Bazkide publiko eta pribatuek kudeatutako estruktura
- Oihanean sartzeko diagnostikoa egiteko kapazitatea duten organismoen laguntza: Office National des Forêts (ONF), oihan publikoarentzat; eta Centre National de la Propriété Forestière (CRPF), baso pribatuentzat.
- Ezagupena lortu dute oihana ustiatzeko erreferente gisa posizionatuz.

- Talde dinamikari esker, proiektu berriak etengabe garatzen ari dira (zuhaitz landaketak, inbertsio berriak).

Ahulguneak

- Errentagarritasun oso ahula (sugaiak ez du diru iturri handia ekartzen)
- Laguntzarik gabe ezin funtzionatu (bi kolehendakariak ordaindu gabe egiten dute lana)

Eredu hau errepikatzeko jarraitu beharreko pausuak

- Lehendabizi merkatu estudioa: nor da kontsumitzailea, zenbat diru ordaintzeko prest da eta zerk dio erosketaren prozesua eragiten (baloreak)
- Ez beldurrik izan proiektu txikia eraikitzeke, eta posibilitatea utzi (antzipatuz) bere garatzeari. Gure kasuan, eraikin txiki eta material gutirekin hasi ginen lanean eta urteetan zehar beste inbertsio garrantzitsuago batzu egin.
- Egin ahala organismo publikoetarik gertu egon, izan baimenak galdetzeko, kudeantzarantz, finantzaketentzat edo lan sarearentzat (gure kasuan Oihana kudeatzen duen sindikatua bazkide da).
- Finantza mailan aditua den pertsona/organismo batekin proiektua zenbakitan jarri eta gastu guztiak zerrendatu (gure kasuan hasieratik konturatu ginen administrazio lanetako dirurik etzela izango eta onartu genuen laguntzaile gisa egitea).
- Saretu: bere kabuz ari den batek aukera gutiago ditu aktibitatea eta posizionamendua garatzeko. Bestetarik ikasten da asko.

